

GIZARTE-HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA-SISTEMA

Posterrak aurkezteko deialdi irekia

Posterren izaera:

- Jardunaldian aurkezten diren lanak argitaratu gabeko lanak izan behar dira ikuspegi zientifiko/profesional batekin. Hauek poster formatuan aurkeztu beharko dira.
- Posterrak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu ahal izango dira.

Proposamenen jasoera:

- Proposamenak urriaren 28a baino lehen bidali beharko dira ceespv@ceespv.org helbidera.
- Proposamenek jardunaldien ardatzetako batekin zerikusia izan behar dute:
 - 1. ardatza: Eskuhartze hezitzailearen eta Gizarte hezitzailearen figura hezkuntza siteman txertatzearen onurak.
 - 2. ardatza: Gizarte hezitzailearen figura txertatuta duten Lehen Hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeen esperientziak eta beraien inpaktua.
- Horrez gain, egileek fitxa bat ere egin beharko dute, non informazio hau jaso beharko den:
 - Izenburu osoa (gaztelaniaz edo euskaraz).
 - Egileen izen osoak.
 - Egilearen edo egileen curriculum laburra (CV), curriculum profesionalari eta akademikoari buruzko gai garrantzitsuenak azaltzen dituenak.
 - Erakundearen identifikazioa (aukerako eremua).
 - Egileren baten helbide elektronikoa eta harremanetarako posta-helbidea.
 - 200 eta 300 hitz arteko laburpena (gaztelaniaz edo euskaraz).
 - Gako-hitzak: gutxienez 3 hitz eta gehienez 6.

Poster proposamenak baloratzeko irizpideak:

- Bereziki proposamenen zorroztasuna eta originaltasuna baloratuko dira, baita Gizarte Hezkuntzaren teorian eta praktikan elementu berritzaileen ekarpena ere.
- Gizarte-hezitzaileentzako prestakuntza-prozesuak edo laguntza teknikoko prozesuak garatzea.

GIZARTE-HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA-SISTEMA

- Gizarte Hezkuntzako ikerketaren garapenean sistema desberdinen parte-hartzea (Unibertsitatea, Administrazio Publikoa eta Gizarte Hezkuntzako Elkargo Profesionalak).
- Gizarte Hezkuntzaren ikusgarritasuna eta Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak onartutako dokumentu profesionalizatzaileekiko koherentzia.

Batzorde Zientifikoak proposamenak ebaluatuko ditu, eta hauen kalitatea hobetzeko eta ekarpena onartzeko beharrezkoak diren zuzenketak proposatuko ditu. Proposamenak onartuz gero, posterra (fisikoa) lehen orduan adieraziko den lekura ekarri beharko dute egileek. Dinamikari eta haren aurkezpenari buruzko informazioa lanak onartutakoan emango da.

Posterrak aurkezteko arauak

- Posterrak neurri hauek izan beharko ditu: 90x120cm (bertikala).
- Proposatzen den eskema (sarrera, metodoa, emaitzak eta ondorioak) gomendatutakoa da, baina ez da derrigorrezkoa atal guztiak barnebiltzea. Egileen harremanetarako datuak, sare sozialetako profilak eta QR kode bat ere sar daitezke, interesgarria den informazioa eskuratu eta deskargatu ahal izateko.
- Datuak hobeto irudikatu ahal izateko irudiak, grafikoak, taulak eta eskemak sartzea gomendatzen da.

Erakusketa-arauak

- Gogoratu posterra egileek inprimatu behar dutela eta jardunaldien egoitzara eraman.
- Poster guztiak eskuragarri egongo dira, jardunaldiaren egoitzan horretarako espreski jarritako gunean. Hitzaldia amaitzean, egileek beren posterra jaso ahal izango dute. Halakorik egin ezean, erakundeak ezabatu egingo du, berreskuratzeko aukerarik gabe.
- Egile nagusiak jardunaldietan izena emanda egon beharko du alde zuzenetik.